

MERKATARITZA ELEKTRONIKOA

Webgune seguruetan bakarrik erosi



Webgune seguruak identifikatzen badakizu?

Internet bidez produktuak erosteko edo zerbitzuak kontratatzeke ematen dituen abantailez berme osoz baliatzeko nahitaezkoa da zenbait neurri hartzea.

Neurri garrantzitsuenetako bat online denda webgune seguruan ostatuta dagoela ziurtatzea da.

Kontsumobidek gomendatzen dizu **segurtasun adierazleak BETI egiaztatzea:**



Lehen begiradan

Zerbitzari seguruko webguneen URL helbidea **HTTPS://** hitzekin hasi behar da. Zenbaitetan, azken "S" hori ordainketa-orrian bakarrik agertzen da.

Giltzarrapo itxi bat edo **giltza bat** ere segurtasun adierazleak dira (URLren ondoan edo nabigatzailearen behealdean). Giltzarrapoa irekita badago, litekeena da gunea ez izatea segurua.



Online Konfiantzako zigilua

Online Konfiantzako zigilu aintzatetsia badauka dendak, enpresak konpromiso etiko eta jarrerakoak hartu ditu bere gain, webgunea egiaztatu da eta, horrek ziurtatzen ez badizu ere arazorik ez duzula izango, gatazkaren kasuan aukera duzu dohainik Online Konfiantzan erreklamatzeko.

Halaber, komenigarria da egiaztatzea denda atxikita dagoen antzeko **beste jarrera kode bati** edo **Kontsumo Arbitrajeari**.



Enpresaren kokapena

Enpresaren kokapenaren daturik ez bada agertzen webgunean, kontuz ibili. Helbidea agertzen bada, saiatu aurkitzen. Harremanetarako telefonoa balego, ondo legoke deitzea enpresa benetan existitzen den ziurtatzeko.

Horrez gain, kontuan hartu Europako Batasunetik kanpoko herrialde bateko online dendan erosten baduzu, arrisku batzuk daudela; izan ere, EBk bertako enpresei betekizun zorrotzak ipintzen dizkiela kontsumitzaile eta erabiltzaileak babeste aldera.